2017ko azaroa

176. zbk

# ARTZAPE

*Getariarron Topagunea*

## HONDAKINAK BATZEKO SISTEMA BERRIA EUSKARA HERRIAN: ALDAPAN GORA EDO BEHERA?

**Astillero**
ANTONIA IRIBAR
Erretegia
*Parrillan espezialitatea*
Kaia, 1
20808 GETARIA
Tel.: 943 14 04 12

barne diseinua interiorismo
Garbiñe Ibarbia Gamboa
Colegiado Nº 5158/158
- Proiektuak eta erreformak
- Obra-zuzendaria
- Obra-eta jarduera-baimenak
- Gremio koordinaketa
Kristobal Balentziaga, 7 - Getaria - Tel. 685 75 18 21 garbi.ibarbia@hotmail.es

Katrapona 4
Tel. 943 140 409
info@katrapona.com
www.katrapona.com
KATRAPONA

HARRALDE
GETARIA NAGUSIA 17
☎ 14 07 04

portu
nagusia 12
20808 getaria
943 140285

MAISOR
*Kantauriko esperientzia*
OBRADOREA eta DENDA
Tel. +34 943 140 993
www.maisor.com
GETARIA
ANTXOA | ANTXOA OZPINETAN | HEGALUZEA | BERDELA | MENTREZKA | SARDINTXOAK

PINTXO GOXOAK
ITSASKIAK DASTATZEKO EDO ERAMATEKO
GETAKA
GETARIAKO PRODUITS EXPRESSION
KALE NAGUSIA 35. GETARIA - TEL.: 943 02 16 13
WWW.GETARIAEXPERIENCE.COM
WWW.GETAKA.ES

KAIA KAIPE
JATETXEA RESTAURANTE
Arnao generala, 4 20808 Getaria // 943 14 05 00 // www.kaia-kaipe.com

Eugenio Uranga
Aseguru Artekaria
Herrerieta, 12
20808 GETARIA
Tel.: 943 140 120
Mobila: 652 775 061
E-posta: euranga@getaia.com

SALANORT
MAESTROS CONSERVEROS
KALE NAGUSIA 22
GETARIA
943 14 06 24
tienda.getaria@salanort.com
Síguenos en FACEBOOK
www.salanort.com

EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

7 Historiaren katebegiak

22-24 Erreportajea: hondakinen sistema berria

4 Elan Euskadi
5 Eskubide Sozialen Karta
6 Artzapetik begira: Kepa Iribar
7 Historiaren katebegiak
8 Harritarten txutxupeka
9 Urritza Aisialdi Taldea
10 Inglix pitinglix
11 Getariako hitza eta Txikiegia agian
12 Iritzia: Uxue Alberdi
13 Petriletik ikusmiran
14-15 Salberak Itsaskabrari
16 Toponimia
18-21 Erreportajea: euskararen egoera herrian
22-24 Erreportajea: hondakinen bilketa sistema berria
26 Klik batean
27 Agenda



2017ko azaroa 176. zbk

# ARTZAPE

*Getariarron Topagunea*

[Argitaratzailea] Artzape Euskara Elkartea
[Egoitza] Krixketaneko Iturrigaina 1 - Eskualtxeta Kulturgunea
[Kontaktua] 943 000 548 / artzape@topagunea.com
[Erredakzioa] Jon Ander de la Hoz eta Iure Eizagirre.
[Lan taldea] Aritz Iribar, Eider Iribar, Izaro Uzin, Joseba Fuentes, Josune Urresti, Nerea Kamio eta Unai Lorenzo.
[Kolaboratzaileak] Aitor Irigoien, Amaia Irazabal, Andres Alberdi, Beñat Gereka, Cesar Blanco, Edurne Irigoien, Elan Euskadi GKE, Ereiten Kultur Zerbitzuak, Garbiñe Ibarbia, Getariako Eskubide Sozialen Karta, Iturzaeta Herri Eskola, Iñaki Requejo, Joxi Erauskin, Kepa Iribar, Markos Aizpuru, Mikel Mugika, Saioa Martinez de Lahidalga, Urritza Aisialdi Taldea, Uxue Alberdi, Uxoa Irigoien, Xabi Insausti eta Zigor Saizar.
[Diseinua] Aritz Paredes
[Inprimategia] Gertu (Oñati)
[Tirada] 365 ale
[Lege gordailua] SS-504/01
[ISSN] 1578-469X

ARTZAPE ALDIZKARIAk ez ditu bere gain hartzen aldizkarian argitaratzen diren iritziak.

GETARIAKO UDALAK, FORU ALDUNDIAk eta EUSKO JAURLARITZAk diruz lagundutako aldizkaria.

Getariako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

elan euskadi
ONGD - GGKE

# Patente moldeak

Gizarte arauak bizi jokaerak diren hipotesian oinarrituz, gizarte arauak aldatuz gero bizi jokaerak aldatu beharko lirateke; baina gizarte arauak aldatzeko bizi jokaerak aldatzea ezinbestekoa da, finean, legedia ez baita biziduna, eta aldaketa gure esku dago. Esandakoa hutsala den arren, orokorrean aipatutakoaren alderantzizkoa gertatu ohi da, hots, biziduna legedia bihurtzen da, estatikoa eta izpiriturik gabea gizakia. Ondorioz, legedia da moldea eta moldeak sorturiko piezak gu. Hitz jokoa baztertuz, zer eragin du legediak pobrezian, edo ongizate arazoak dituzten herrialdeetan? Edozeinek erantzun lezake, hau da, legedi zehatz batek garapena eta laguntza moztu dezake. Gizarte baten errealitatea moldeatu dezake.

Legegintza eta moldeaketaren arduradunetako bat patenteen legegintza da. Zergatik dute patente legedi berdina jostailu eta medikamentu batek? Finean, eta hitz gutxitan, jakinduria monopolioa bihurtu delako, haatik, ideien monopolioa areagotu egiten da krisi humanitarioko zonaldeetan, azken hauen metaketa basatia ere ematen delarik.

Asmatzaile edo ikertzaile askok esan dezakete beraien lana izan dela eta eskubidea dutela irabaziren bat izateko, beren produktua edo ideia bat delako finean. Baina, zer jarriko genuke lehenago, gaixo baten bizitza ala patentearen legedia hertsiki betetzea, hau da, milaka euro ordaintzea medikamentu batengatik? Garapen librea, hau da, ideiak eta asmakizunak komunak izatea, mahai gainean ideia guztiak guztiontzat izatea, albokoa kopiatzea al da? Ala, guztion artean garapena areagotzeaz gain, garapena bera moralki duina bihurtzea? Zerk bultzatzen gaitu patente legeak eraikitzera eta ez ongizate legeak?

Berrikuntza prozesuak errotik aldatu behar dira, are gehiago, emaitzek irekiak behar dute izan, behar duen orok hartu eta erabili ahal izateko. Asmakizunak asmakizun hutsak dira, ez merkatuan lehiatzeko tresnak. Patenteak indar legegile gutxiago beharko luke eduki garapenerako produktu eta prozesuen norgehiagoka kooperaziozkoa izateko.

Patente ideia baztertuz gero, asmatzaile eta ikerlarien motibazioa ahuldu egingo litzateke? Garapena galgatu egingo litzateke? Etorkizunaz ez dakigu asko, baina patenteen munstroa suntsituko genuke, ezean, patenteen monopolioak demokraziaren oinarriak kulunkatuko lituzke-eta.

Horregatik, garapen humanitario eta politikoa emateko ezinbestekoa da gure ustez garapenerako sare askeak bermatzea, legeak pertsonen ongizatea eskaintzeko eraikitzea eta jakinduriaren jabetza ireki bat egotea.

Newtonen mugimenduaren hiru legeak patentatuak izan balira, zer eragin izango zukeen teknologia eta orokorrean zientziaren garapenean? Edo Ampere, Lenz, Faraday, Pasteur, Arquimides, Tesla, Galileo, Kepler, Turing, Laplace, Heisenberg, Marie Curie edo Schrodingerren aportazioak patentatuz gero? Zer nolako miserian biziko ginatekeen.

# 1917 - 2017...

1917ko martxoaren 8an, Emakume Langilearen Egunean, milaka emakumek Petrogradon —gaur egungo San Petersburgo— iraultza piztu eta urte bereko azaroaren 8an, herri xumeak, boterea bere esku hartu zuen "botere guztia sobietentzat" aldarrikatuz. Ondorengo hamarkadak markatu dituen gertakari historikoa eman zen Errusian: Iraultza Boltxebikea!

Marcos Roitmanek jardunaldien baitan emandako hitzaldia. /Arg.: Getariako Eskubide Sozialen Karta

Boltxebikeak boterera iritsi eta azkar batean ezarri zituzten aldaketaren oinarri izan nahi zituzten erabakiak: lurren nazionalizazioa; dibortzio librea eta baldintzarik gabekoa; bankaren nazionalizazioa; ezkontza zibila; zortzi orduko lanaldia; heriotza zigorraren abolizioa; abortu librea eta doakoa; bakegintzaren inposaketa; emakumeen bozkatzeko eskubidea; eskola publiko, laiko eta doakoa... Xabier Arrizabalo Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Zientzia Ekonomikoetako irakasleak *Berria*n berriki adierazi duen bezala, "gaur egungo estatu eta potentzia aurreratuenek ere konpondu ez dituzten auziei heldu zieten".

Jazoera hark, gainera, milioika laguni zuzen-zuzenean eragin zigun/digun errealitate bat bultzatu zuen: Ongizate Estatua. Irabazitako eskubideak, ordea, azken urteetan paradarik ez duten galera jasaten ari dira, desberdintasun sozialen areagotzean ezaugarritzen den gizartea eraiki arte, *La izquierda diario*n Josefina L. Martinezek Josep Fontana Bartzelonako Unibertsitateko historialari ohiari egindako elkarrizketan argi adierazten duen bezala. Oso ondo adierazten digu John Berger idazlearen esan honek ere: "Gaur egungo pobrezia beste ezein probreziarekin alderaezina da. Ez da, inoiz izan zen bezala, eskasiaren berezko ondorio bat; aitzitik, aberatsek gainerakoei inposatutako lehentasun multzo baten ondorioa da".

Urrian eta azaroan herrian antolatu ditugun jardunaldiek oroimen historikoa berreskuratzeaz gain, aurrera begira bidea egiten jarraitzea izan dute helburu. Orain dela 100 urte emandako esperientzia hark irakaspen asko utzi dizkigu, Arnaldo, Marcos, Josefina, Iñaki eta Xabierrek argiki azaldu diguten bezala. Pare bat aipatzearren, bata, herri xumeak posible duela boterea eskuratzea eta bestea, borrokari esker izan litekeena baino mundu hobea dugula.

Azken hamarkada luze hauetako milaka eta milaka pertsonek bezala, guk ere pentsatzen dugu kapitala inposatzen ari den prekarizazioaren aurrean klase subjektua berrosatu eta borrokatu egin behar garela, pertsona guztiok bizitza duina izan dezagun. Hau da, bizitzea merezi duen bizitzaren alde borrokatu behar garela.

Amaitzeko, motzean, urria-azaroko hitzaldietan han-hemenka ateratzen joan diren hitz eta adierazpideekin jokoa eginez, zera aldarrikatzen dugu: kapitalaren diktaduraren aurrean, iraultza demokratikoa. Patriarkatuaren aurrean, iraultza feminista eta garapen eredu txikitzailearen aurrean, iraultza ekologista.

KEPA IRIBAR

# Hitzen higadura

Harrigarria iruditzen zait bertsolarien gaitasuna. Hitzak eta errimak neurri zein doinu zehatz batera errenditzeko ahala. Eta, gainera, taxuzko gauzak esanez. Ederra iruditu zitzaidan Maialen Lujanbioren Irungo bertsoaldia. Orri hauetako kide dudan Uxue Alberdi malkoei eutsi ezinda sumatzeak berretsi zidan iritzia "ño, earrak izan lituan". Whatsapp bidez iritsi zitzaidan, esaldi batekin: "Historia osoko onenetakoa ote?". Ez dut nik bertsolaritzaz ulertzen; ezin, beraz, galdera hori erantzun. Baina ez noa hortara. Aspaldian oso hedatua ikusten dut dena historikotzat jotzeko ohitura, gehitxo aukeran.

Honezkero pentsatu duzue, eta bai, arrazoi guztiz: kirol kazetaritza da, akaso, horretan oparoena. Dena da partida "historiko", mendeko gertakizunak urtean pare bat aldiz gutxienez izaten dira. Baina kiroletatik kanpo ere sarritan entzuten/irakurtzen dut "historiko" abizena gertaera baten alboan. Gauza batzuk neurtu daitezke zenbaki hotzez. Esaterako, getariar mordoxka batek Mazedoniara Realaren hegazkinean bapo —eta presidentearen kontura, hori pagotsa!— *business class* bidaia egin zuten partida 0-6 amaitu zen. Inoiz talde txuri-urdinak Europan lortu duen gol kopuru handiena etxetik kanpo. Hori historia da, inoiz gertatu gabekoa. Edo 60 urteren ondoren Italiak Mundiala ez jokatzea —*mamma mia ma che cosa!!!*—.

Baina, nola konparatzen da Maialenen bertsoaldi bat Txirritarekin edo Amurizarekin? Nola Messi Pelerekin? *Casablanca*, *Psicosis* eta *Schlinderl's list*? Nola Anna Pavlova Lucia Lacarrarekin? Eddy Merckx Chris Froomekin? Konparazio hauek ezinezkoak dira nire ustez, kontutan hartu behar baita bakoitza bizi izan den garaia, baita testuingurua ere.

Edo sekulako zortea izaten ari gara, eta gu bizi garen azken 30 urtetan historiara pasako diren gertaera asko jazotzen ari dira, edo "historiko" hitza esanahiz husten ari gara, gastatzen. Edo dena etikatzeko beharra sentitzen dugun marketingaren aro honetan, onena soilik nahi dugu, eta beraz, saldu beharra dagoenez, dena da "historiko". Ez zaigu itxuraz nahikoa egiten bertsoaldi bat, kirolari bat, film bat... oso ona izatea, onena behar dugu beti. Beti onenaren bila dabilenak arrisku bat dauka: maila horretara iritsi ez baina oso ona den zerbait bidean galtzekoa, daukan balioa ez ematekoa, gauza txikiagoen edertasunarekin ez gozatzekoa.

**Udaletxeko artxiboetatik**
EREITEN Kultur Zerbitzuak

# EUSKARAREN ALFABETIZAZIOA GETARIAN

Gaurkoan, urrian aipatutako alfabetizazioaren gaia —denboran salto bat emanda— eta euskara 1970eko hamarkadan erlazionatuko ditugu. Abenduan euskararen gaia jorratzearen zergatia argia dela esan daiteke, hil honetako 3. egunean ospatzen baitugu Euskararen Nazioarteko Eguna.

Jakina den moduan, XX. mendean gure hizkuntzaren osasuna oso aldakorra izan da arrazoi ezberdinak direla medio. Urrian esan bezala, XIX. mendearen amaieran euskara ia hezkuntzatik at zegoen, ekimen pribatuaren bidezko eskola planteamenduak agertzen joan arren. 1857tik 1970era bitartean indarrean egon zen Moyanoren legeak gaztelaniazko gramatikaren derrigorrezko irakaskuntza ezarri zuen espainiar lurralde osoan.

1917an, Hego Euskal Herriko hiru probintziek Euskal Herriko Mankomunitatea sortzeko bideari ekin zioten, eta horren isla dira Gipuzkoa eta Bizkaiko Diputazioetako administrazioan euskararen erabilera dokumentatu izana. 1918an Eusko Ikaskuntza, 1919an Euskaltzaindia eta 1927an Euskaltzaleak elkartea sortu ziren. Bigarren Errepublika izango da erabilerari dagokionez ordura arteko aro garrantzitsuena.

Gerra Zibilaren ondoriozko Francoren agintaldiaren garaiak atzerapauso nabarmena suposatu zuen. Guda Zibilean eroritako azken euskal lurraldearekin batera, euskarak hilabete gutxi batzuetan gozatutako ofizialtasuna ere galdu zuen. Horrez gain, hizkuntza bera erabiltzeko mugak handituz joan ziren. Gerra ondoreneko urteetan, euskara irakasten jarraitu zuten gutxi batzuk, oso baldintza zail eta arriskutsuetan.

Euskaltzaindiak bultzatuta, 1966an euskaraz alfabetatzeko lehen kanpaina jarri zen martxan, eta urte honetan jarri ziren AEK-ren (Alfabetatze eta Euskalduntze Kordinakundea) eraikuntzaren lehen harriak.

Francoren heriotzak eta diktaduraren erorketak euskarari bideak ireki zizkiola esan daiteke, pixkanaka, erakunde publikoen aldetik euskararen alfabetatze prozesuan erraztasunak eskaini baitziren.

1976ko otsailaren 26ko 573/1976 Errege Dekretuaren bidez gobernuaren onarpena lortu zuen Euskaltzaindiak. Hortik aurrera, aipatutako erakundeak bere eragina handitu egin zuen, nabarmen. Horren erakusgarri dugu Getarian jazotakoa. Udal akten arabera, 1976ko azaroaren 30ean Ignacio Zulaicak , "*profesor titulado por la Academia de la Lengua Vasca*", baimena jaso zuen Eskola Nazionalen lehendakariaren eskutik, Hezkuntza eta Zientzien Delegazioaren bidez, euskarazko alfabetizazio klaseak eman ahal izateko zehazki aipatzen ez den Elkano kaleko lokal batean. Baldintza bakarra jarri zitzaion: erabili beharreko materialaren gastuak berak ordaintzea.

EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

# Sagardotegira bisita

Egunero bezala gelako lanak egin beharrean, urriaren 18an Aginagako sagardotegi batera joan ginen sagardoa nola egiten den ikustera. 6. mailako Aneren amak gonbidatu gintuen eta aukera ezin hobea iruditu zitzaigun. Horrela, 5. eta 6. mailako ikasleok joan ginen irteerara.

Oinez joateko ibilbidea luzeegia zenez, Lurraldebuseko autobusean joan ginen, norberak bere txartela erabilita eta ez zutenek diruaz ordainduta. Aginagara heltzeko bi autobus hartu behar izan genituen. Getariako autobus geltokian hartu genuen lehena baina honek ibilbidea autopistaz egiten zuenez, Zarauzko lehen geltokian jaitsi eta herriz herriko ibilbidea egiten duena hartu genuen. Aginagara iristean, autobusetik jaitsi eta oinez sagardotegira joan ginen; berehala iritsi ginen, herrian baitago. Bertan, zain geneukan Arantxa, eta harrera beroa egin zigun.

Sagardotegian, makina ezberdinak ikusi genituen. Lehendabizi sagarrentzako igerilekua erakutsi ziguten; bertan, sagarrak garbitzen zituzten. Ondoan zegoen igogailu antzeko beste makina txiki batek, garbitutako sagarrak gora igo eta zinta batean kokatzen zituen. Gizonezko batek usteldutako sagarrak bereizi eta sagar onak makina batera bideratzen zituen. Makina horrek sagarra txikitu eta lortutako zukua hodi batera botatzen zuen. Bertan geratzen diren sagar zatiak behiei jaten emateko erabiltzen dituztela esan ziguten.

Sagardoa gordetzeko 25.000 litroko tankeak zeuden. Amaitzeko, botilei kortxoa eta etiketa jartzeko makinak ikusi genituen.

Hamaiketakoa sagardotegi barruan egin genuen eta tarte horretan sagar zukua dastatu genuen. Bi egun ezberdinetako zukuak dastatu genituen, hain zuzen. Gehienoi ikaragarri gustatu zitzaigun.

Sagardotegiko bisita amaitu eta ondoan dagoen frontoira joan ginen. Jolasean ari ginela, bertako eskolako umeak etorri zirenez, Aginagatik Usurbilera oinez abiatu ginen, ibaia jarraituz. Usurbilgo auzo bateko frontoian bazkaldu genuen. Jarraian, Usurbilgo herriko frontoira joan ginen eta bi taldetan banatuta, jolas ezberdinak egin genituen. Gainera, Usurbilgo gure adineko hiru mutilen aurka futbol partida bat jokatzeko denbora ere izan genuen. Beranduago parke estali batera joan eta lurrean marraztutako jolasetan ibili ginen. Oso parke polita zen, baina euria egiten zuenez, oso irristakorra zegoen.

Sagar zukua dastatzen, Usurbilgo sagardotegian.

Eguna amaitzeko, Getariara arratsaldeko 16:00etan iritsi nahi genuenez, parketik Usurbilgo autobus geltokira joan ginen. Denbora oso ongi kalkulatu genuen, autobusa berehala etorri baitzen. Halere, autobusa beteta zegoenez, zutik etortzea egokitu zitzaigun. Beraz, oreka mantendu ezinik etorri ginen. Baina lasai, inork ez zuen ospitalera joan behar izan!

Irakasleek irteera egunerako eguraldiaren iragarpena begiratu zuten, baina huts egin zuen. Izan ere, eguraldi kaxkarra izan genuen, baina ez ginen gehiegi busti.

Azkenik, eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen. Mila esker gonbidapenagatik, asko ikasteaz gain, oso ongi pasatu genuelako.

# 2017 berezia

Kaixo, Urritza kideok!

Azaroaren amaierara iritsi gara eta Urritzari ARTZAPE aldizkarirako urteko azken kolaborazioa egitea dagokio. Baina lasai, Urritza kideok, honekin ez dugu-eta urtea amaitutzat ematen, ez da gutxiagorik ere. Oraindik izango da bai gaztelekuan bai Getariako plazan Urritzarekin ongi pasatzeko tartea. Urteko azken idatzi honetan, ordea, 2017a Urritzarentzat zein urte berezia izan den partekatu nahi dugu.

2016 urtearen amaieran Getariako Gaztelekuak ibilbide berri bati hasiera eman zion Katxopa Gaztelekua izenarekin eta Urritzaren eskutik. Urte polita izan da Katxopa gaztelekuan! Getariar gazteenak eta oraindik ere gazte garenok ederki konpondu gara. Urteak askotarako eman digu eta ea datorrena ere aurtengoa bezain dibertigarria eta oparoa izaten den. Ahaztu gabe, joan den azaroaren 1ean Katxopa Gaztelekuaren lehen urteurrena ospatu genuen, beraz, gure partetik ZORIONAK KATXOPA eta URTE ASKOTARAKO!!!

Bestalde, Urritzako udaleku ireki eta urteko ekintzez zer esan? Zer moduz daude irailean landaturiko perrexilak? Ausartu al da inor esperimentuak etxean berriz egitera? Aurten ere denetarik egin dugu!

Udalekuetan berriz 150 haur inguru eta 20 begirale. Zer nolako nahasmena sortzen genuen uztailean goizeko 9:00etan. Lagun talde bikaina osatu genuen. Aurten Txiki Txokoa aisialdi eskaintza berria ere martxan jarri dugu, Haur Hezkuntzako 2. mailako haurrei zuzenduta. Ikusten duzue, berrikuntzaz eta arrakastaz beteriko urtea izan da. Hori dela eta eskerrak eman dizkizuegu Urritza Aisialdi Elkartearekin jolas egitera animatu zareten guztioi.

Amaitzeko, primizia moduan, abenduaren 16an, Urritzaren eskutik, aukera ezin hobea izango da Gabonetako apaingarriak egiteko. Beraz, badakizue, zuen etxea edo zuhaitza apaindu nahi baduzue, gerturatu. Horrez gain, neguko hotzari aurre egiteko, urtarrilaren hasieran Txuri Urdinera joango gara ipurdiak zertxobait berotzera.

Ondo izan Urritza kideok!

UXOA IRIGOIEN

# "If you love where you live, buy *local!*"

"Bizi zaren lekua maite baduzu, bertan eros ezazu!"

Gabonak bidean ditugu eta laister hasiko gara ohiko erosketekin: afarirako legatza, txokolatezko kapritxoak, eztarria bustitzeko xanpaina, digestioa arintzeko jarabea, anaiarentzako masaje saioa, amarentzako oinetakoak, lagunarentzako jertsea... Hara! Getarian erosketa guztiak egin ditzaket! Herriko dendariekin berriketan arituz, kalitate bikaineko erosketak, saltoki handietako *agobiorik* gabe! Ingelesez praktikatu nahi baduzu... *Let's go shopping!*

**Vocabulary**

| English | Pronunciation | Euskara |
|---|---|---|
| Butcher's | Batxers | Harategia |
| Fishmonger's | Fixmongers | Arraindegia |
| Chemist's | Kemists | Farmazia |
| Clothing shop | Klozin xop | Arropa denda |
| Jeweller's | Yeuelers | Bitxidenda |
| Bakery | Beikeri | Okindegia |
| Delicatessen | Delikatesen | "Delicatessen" denda |
| Book shop | Buk xop | Liburu denda |
| Grocery | Groseri | Janari denda |
| Physiotherapist | Fisiocerapist | Fisioterapeuta |
| Hairdresser | Jerdreser | Ile-apaindegia |

**Esamoldeak**

| English | Pronunciation | Euskara |
|---|---|---|
| I want to order a cake | Ai uon tu order a keik | Tarta bat enkargatu nahiko nuke |
| It this in sale? | Is dis in seil? | Beherapenik ba al du honek? |
| Can I pay by card? | Kan ai pei bai kard? | Txartelarekin ordaindu al dezaket? |
| What time do you open? | Uot taim du yu oupen? | Zer ordutan irekitzen duzue? |
| The changing rooms are over there | De txentxin ruums ar ouve der | Probalekuak hor daude |
| I like shopping in small local shops! | Ai laik xopin in esmol loukal xops! | Erosketak herriko denda txikitan egitea gustatzen zait |
| Let's go shopping! | Lets gou xopin! | Goazen erosketak egitera! |

Bidaltzailea
ARTZAPEKO LANTALDEA

# "GEZURRA ETA APASTA"

Esapide hori erabiltzen dugu Getarian, jardun merke edo hutsalean, kontu pila bat nahasian, gezurra eta auskalo bestelako zer, kontu-kontari ari denaren jarduna adierazteko. Metafora polita da, apasta bera ere atun-buru txikitu, ogi zati eta abarrekin eginiko nahastura baita.
Ez dakigu beste inon erabiltzen den esapide hori. Antzeko bat erabiltzen dute Baztan aldean gauza bera adierazteko: "*gezurra eta papartza*". Xehatutako egurrak uzten dituen zatiak, ezpalak dira papartzak.

---

Getarian eta inguruetan esaten diren hitzen txokoa da hau. Animatu eta bidali *artzape@topagunea.com* - era ezagutzen dituzun hitzak.

Idazlea
AMAIA IRAZABAL

# HARTZA

Hartz bat izan nahi dut

buruhauste humanorik gabe.

Bai, hartz handi eta iletsua,

eta ez atera udaberrira arte.

# ERLEAREN DANTZA

Erlearen dantza egin nahi dut

burrunba goxotik ziztadez

goizeko nagiak astindu.

Erlearen dantza egin nahi dut

sei hormako gelak muxuz bete

eta zuen bizitzak eztitu.

UXUE ALBERDI

# Josune Bikuñari, esker onez

**Doinua:** *Jardin bat zuretzat* (Xabier Lete).

Lagun bat galtzearen
minak ze hutsune,
baina oroimina da
irriparren gune.
Begi baten sorgin bat;
bestean, bi ume…
Dotore, irrifartsu,
goxo bezain xume,
zoragarria zinen:
milesker, Josune.

Xume-sakona da zuk
utzitako marka:
bizia nola heldu
ta nola besarka,
azkenari begira
egonik, zeharka…
Bizitzeko adina,
hiltzeko, ausarta;
Hain pertsona apala
eta hain aparta.

Umetokiko gaitza
zure angustia…
Gaur alde erantzira
nahi dut ikustia:
sormin ederrena zen,
maitasun bustia,
zure sabela puzten
zuen eguzkia:
zuk erditu zenuen
zorion guztia.

Zure begi argiak
hizkien artean
ostegun iluntzetan,
gauaren atean,
liburuen liluran
ta libertatean…
Gugan zaudenez joan
zaitezke bakean,
elkartu arte beste
ipuinen batean.

Irakurle-taldeko lagunen partez.

Aldizkari guztiak helbide honetan:
issuu.com/artzape




# 32. ZENBAKIA
## 2004KO URRIA

ZER BERRI? Eguneko zentroa

## EGUNEKO ZENTROAREN IREKIERA

Hilabete pasatxoko atzerapenarekin, 2004ko urrian ireki zuten Eguneko Zentroa. Ezintasuna zuten sei adinekok estreinatu zuten Itxas-Etxeko hirugarren solairuko zerbitzua. Nekane Imaz koordinatzaileak hasierako beldurra aitortu zuen, bai langileen bai erabiltzaileen aldetik. Goizez gimnasia eta erabiltzaileen egoeraren araberako aktibitateak egiten zituzten; arratsaldez, berriz, atseden hartu eta erlaxatzeko ekintzak. 2015ean lekualdatu zuten Eguneko Zentroa.

**Artzape**

ELKARRIZKETA: Maribi Zubizarreta

## MUNDUKO BEGIAK SENDATZEN

Maribi Zubizarreta erizainak, 28 urte lanean aritu ondoren, esperientzia berria bizi izan zuen Mozambikeko Inhambane hirian. Izan ere, Ulls del Mon GKEren eskutik, katarata ebakuntzak egiteko proiektu batean hartu zuen parte. Bi astean 155 ebakuntza egin zituzten. Bertako egoera tamalgarriak eragin zion Zubizarretari: "Bat lau hanketan ikusi nuen, eta hura ikusita negarra atera zitzaidan. Orduan pentsatzen duzu: *nik zer egiten dut hemen? Ba ahal dudana egitera noa*".

**Irantzu Ezenarro**

ERREPORTAJEA: Kiroldegi berritua

## KIROLDEGIAREN INSTALAKUNTZAK

Lau hilabete itxita eta berritzen pasa zituen Sahatsaga kiroldegiak. Irailean ireki zituen berriro ateak Jose Ignazio Atorrasagastiren kudeaketarekin. Garai hartan oso modan zegoen *spinning*a zen berrikuntzetako bat; hiru talde osatu ziren ikasturte berrirako. Bestalde, ekipamenduei dagokionez, makinen gela, sauna, hidromasajea eta lurrin bainua jarri zituzten. Besteak beste, orduan kanpora joaten zen jendea bertan geratzea espero zuen Atorrasagastik.

**Jon Illarramendi**

ZIGOR SAIZAR

# Egunak

"Atzamarrak nekatu egiten zitzaizkion
egunak kontatzen hasten zen bakoitzean.(...)
(...) Egutegiek zertan egiten ote dute mesede?
Horren garrantzitsua da bizi dugun egunak
zenbakia eta eguna izatea?
Zergatik dira batzuk besteak baino egunago?
Beharrezkoa delako, noski.
Beharrezkoa baita egun zehatzen esperoan egotea;
bizitza osoa egun zehatzen esperoan ematea:
eskoletara hasteko lehen eguna,
lehen musurako eguna,
maitasuna egiteko lehen eguna,
hamazortzi urte betetzekoa,
lana aurkitzekoa, etxea erostekoa, ezkontzekoa,
familia osatzekoa, jubilatzekoa eta... hiltzekoa.
Eta zergatik ez datoz egutegietara
bizitzea erraza zeneko egun haiek?
Zergatik ez dakartzagu efemerideetara
jolas egitea beste derrigorrik ez genuen
sasoietako egun haiek? (...)
(...) Urteak pilatzen zitzaizkion atzazaletan.
Horixe pilatu zitzaion urteotan guztietan,
egunak, urteak,
besterik ez".

*Atzazaletan*, Gotzon Barandiaran, 1974.

Azaroaren 25a, Emakumeenganako indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna. Abenduaren 1a, HIESAren aurkako Eguna. Abenduaren 3a, Euskararen Eguna. Maiatzaren 17a, Homofobiaren eta Transfobiaren aurkako Nazioarteko Eguna. Ekainak 5, Ingurumenaren Eguna...

Egunak, Iñaki, 365 egun "egunez" beteta; batean laxo gorria, bestean morea, hurrengoan arroxa, berdea... Eta segi... Udaletxetako eta gure etxeetako balkoietan bandera moreak, arroxak, berdeak, ostadarraren kolore guztietakoak... Eta segi... Pankartak, elkarretaratzeak, manifestazioak, kazeroladak... Eta segi...

Beharrezkoak dituk? Zoritxarrez, bai; zeren egun horiek gabe ezer ez zaigula axola emango likek. Baina, horixe, *emango likek*, itxura hutsa; boladan dabilen hitza erabiliz, *postureoa*.

Zeren oraindik "manada" ikaragarri zeudek gure artean; kondoia erabiltzea inuzenteena dela pentsatzen duen "matxito" izugarri; umeei eta txakurrei euskaraz egin baina koadrilan erdaraz *de guay* aritzen direnak ere majina; eta zer esanik ez, zaborra botatzerakoan ontzien koloreak bost axola zaizkien daltonikoak.

Egunak, Iñaki, egunak pilatzen dizkiagu bata bestearen atzetik, koloredun laxoekin egun bakoitza lotuz. "*Eta zergatik ez datoz egutegietara bizitzea erraza zeneko egun haiek? Zergatik ez dakartzagu efemerideetara jolas egitea beste derrigorrik ez genuen sasoietako egun haiek?*".

IÑAKI REQUEJO

# Handitasunean galdurik

Egutegiak baino ordenamendu kosmologikoa maite diagu, Zigor; Descartesen XYZ ardatzak dituk horren isla garbia. Zeinek ikusten dizkik hiru ardatz horiek ingurunean? Garrantzitsua ez duk ardatz horien existentzia, geure burua handitasunean galdurik ez egotea baizik.

Egutegia bera ere baliabide bat duk, gizakiak ez baitik erlatibismo existentzialean bizi nahi, paperezko itsasontzi bat Atlantikoan bezala. Segida linealen erreinua eraiki diagu, errotaziorik gabea, erotasunik gabea.

Beti dudan nagok ea zorotasun klinikoa segida lineala jarraitzeko asmakizuna ez ote duken. Zertara datorren

zorotasun klinikoa? Sinplea duk galdera, sinpletasunak ez dakar erraztasuna, ordea.

Zorotasun klinikoak ez dik segida linealik, matematikako funtzio kubikoak bezala gora-beherak ditik. Kaotikoak eta ederrak dituk aldi berean, baina arriskutsuak existentzia aurrera eramateko.

Barandiaranek zera galdetzen dik bere idatzietan: "zertan egiten ote dute mesede?".Galdera horrek zeharkako informazio ugari eskaintzen ziguk. Batetik, mesedegarria izan ala ez egutegia baliabide huts bihurtzen dik, eta bestetik amets joko bat, etorkizunaren txokolatezko etxea.

Lastima izan arren, egungo gizarteak eta zientziaren ikuspegiak egutegia baliabide bihurtu dik, morrontzaren erreinu. Mesedegarria den? Bai, zenentzat? Galdera ona. Gizarte motaren baitan egon beharko luke erantzunak.

Egutegia ez diagu jai edo ospakizunen eremu bihurtu beharrik, hik esan bezala, egunak pilatzen baitizkiagu bata bestearen atzetik, koloredun laxoekin egun bakoitza lotuz. Laxo horiek gizakiak bere burua zuritzeko ekintzak besterik ez dituk, bere ekintza ustelak beti besteek egiten dituztela azpimarratu eta arazoarekin bat egiteko, ekintza paregabea dela salduz komunikabideetan.

Egunen estrukturazioak ez luke atzokoa eta biharkoa gogoratzeko izan behar, hori eguneroko ekintzetan erakusten duk. Estruktura batek oreka du helburu, gure kasuan, oreka soziala, obligazioen oreka. Gizaki bezala existentzia ordenatu bat beharrezkoa diagulako, urteak erakutsi bezala. Zoro klinikoa ez baitiagu onartzen ez abegikortasunez hartzen, segida lineal eta aldagaitzetan sinisten baitiagu, A-B-C segida. Erlatibismoak konfrontazioa sortzen baitu gizakian.

Ondorioz, albokoa errespetatu arte, abegikortasunez jokatu arte, egutegia baliabide eta zuritzeko estruktura bat besterik ez duk izango.

Egunen batean, albokoa ulertzera iristen garenean, agian, egutegia txokolatezko etxe bihurtuko duk, zeinak derrigorrik ez genuen sasoietako egun haietara eramango gaituen, bizitzea erraza zeneko egun haietara.

**ZAINTZA EGUNAK**

***Abenduaren 11tik 17ra.***

**FULDAIN FARMAZIA**



ANDRES ALBERDI

# Urkiola eta Zingira

Eitzaga auzoko ekialdeko baserriak ditugu biak, Santa Barbara bidean daudenak, Zarauzko mugatik gertu-gertu.

**URKIOLA**. Izen berezi oso ezaguna eta arrunta da Euskal Herriko herrialde guztietan. Ia herri guztietan dago izen hori duen baserri, auzo, parajeren bat. Eta entzutetsuena, seguru asko, San Antonio Urkiolakoa egingo zaigu.

Bi osagai ditu izenak: *urki + ola*. Lehenengoak ez du arazorik sortzen: zuhaitz-mota bat da urkia (gazt. *abedul [Betula sp.]*). Bigarren osagaiak, *ola*k, sortzen du ezbaia, hitz elkartuaren bukaeran datorrenean. Batzuetan, txabola edo etxola esan nahi du, burdinola edo herreria ere adierazten du izen batzuetan, eta toki edo parajea ere adieraz dezake.

*Urkiola* izenari gagozkiola, toki edo parajea da aukeratu beharreko adiera. *Urki asko dagoen tokia* da Urkiola. Eraketa berdina dute beste izen hauek ere: Iraola (ira- edo garo-tokia), Loiola (basa-, lokatz- edo lohi-tokia), Otaola (ote-tokia), Pagola (pago-tokia), Sasiola, Sarasola, Mendiola…

**ZINGIRA**. Izen hau ez da oso ohikoa toponimian. Bada Bilboko parte zaharrean kale bat izen hori duena; bada Aia eta Orio aldean kanpin bat ere izen horrekin; bada Bermeon paraje bat ere…, baina ez da toponimian asko ageri ohi den hitza. *Ur asko dagoen tokia* da zingira.

Zingiraren esanahi bera duten beste elementu hauekin eraturiko izenak ezagunagoak dira agian: *istinga*, *padura/fadura*, *istil*, *putzu*, *aintzira*, *urgeldi*, *urtza*… (gaztelaniaz, *pantano*, *aguazal*, *ciénaga*, *cenegal*). Badira sinonimo horiekin eraturiko izenak ere Euskal Herrian.

Urkiola.

Zingira.

**IRIZABAL,S.A.**
ARRAINAK

IPAR KAIA Z/G 20808 GETARIA (GIPUZKOA) TEL.: 943 89 60 10 FAX: 943 14 00 30 C.I.F.: A-20090981

**azkuelek**

Araba kalea, 41 ZARAUTZ
(Maxi Eroski ondoan)
943-13 04 33 - 619 523 539
azkuelek.com

ETXEKO BERRIKUNTZAK · TELEKOMUNIKAZIOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK · ARGIZTAPENA · DEKORAZIOA · KONPONKETAK · ANTENAK

**Getaria**
AUTOESKOLA

Herrerieta
23 behea

Tel: 943 140 301

*ORDUTEGI MALGUAK - EUSKARAZ EGITEKO AUKERA*

**POLITENA**

GURE BEREZITASUNAK:

- Astegunetan:
  Eguneko menua
- Jaiegun eta asteburuetan:
  Luxuzko pintxoak, bokatak eta razioak.
- Eramateko eskariak.
- Wi-Fi zerbitzua.

GETARIA

Kale Nagusia, 9
Tel. 943 140 113

**aranola**
PVC eta Aluminiozko lanak

Tel.: 649 95 15 03 / 649 97 30 41
Fax.: 943 14 02 86

Taberna
**Mayflower**
Erretegia

katrapona, 4
Tel.: 943 14 06 58 GETARIA

**TXOKO**
Getaria

txokogetaria.com

Tlf: 943 140 539

# euskaraz bizi

*"Medikua erdalduna da; pediatra euskaldunen gabezia dago, eta arazo hori existitzen da hemen".*

**Testua eta Argazkiak**
JON ANDER DE LA HOZ

## Euskararen egoera herrian

# ITO NAHI EZ DUEN ARNASGUNEA

*Herri euskalduna da Getaria, baina uste bezain osasuntsu al dago hizkuntza gurean? Hainbat eragileren iritzia bildu du ARTZAPEk ale honetan. Bakoitzak beretik bizi du euskararen egoera; ikuspegiak anitzak izan daitezke, baina gurea bezalako arnasgunean erabilera mantentzeko nahia gailentzen da.*

Kantu poteoetan, instituzioen agerraldietan eta bestelako zenbait ekitalditan goraipatu egiten da euskararen xarma, hizkuntza zaharra eta zaindu beharreko ondarea dela etengabe azpimarratuz. Hizkuntza baten guda zelaia, baina, egunerokotasuna da. Hura galtzen denean, akabo. Horregatik, euskarak Getarian nolako osasuna duen galdetu dio ARTZAPEk bere buruari, eta ideia horren jirako gogoeta egitera bultzatu ditu herritarren egunerokotasunean presentzia nabarmena duten zenbait eragile.

Herritar gehienen ama hizkuntza euskara denaren premisatik abiatuta, euskararen egoera nolakoa den erantzun dute Begoña Agote Iturzaeta Herri Eskolako irakasleak, Iosu Mugika Keta Futbol Taldeko zuzendaritzako kideak eta Klari Aranguren osasun etxeko langileak.

Hiruen ustez, euskarak Getarian duen egoera ona da. Honela zehaztu du Mugikak: "Getarian euskarak duen egoera ona dela esango nuke, beti ere gehiago erabiltzeko aukera dugularik". Bide horretan, aurrera egiteko zenbait aukera ikusten ditu Ketako sortzaileetako bat denak; besteak beste, hizkuntza lantzeko inbertsioak egitea, adibidez, establezimenduetako afixak zein bestelakoak egiteko. Horrez gain, euskara erabili nahi duenari erraztasunak emango lizkioke Mugikak; eta arlo orokorrago bat aintzat hartuta, abizenak eta izenak euskalduntzerakoan jarrera irekiagoa eskertuko luke.

Bere aldetik, Mugikak zehaztu du herriko kirol talde gehienetan bezala, euskara dela Keta Futbol Taldeko hizkuntza nagusia. Bere esanetan, egunerokotasunean euskara erabiltzen dute jokalari gazteek, baita zuzendaritza batzordeak ere. Gainera, komunikatuak idazterakoan euskara da Ketako hizkuntza nagusia, edo elebitan aritzen dira bestela; sekula ez gaztelania hutsean. Salbuespenak salbuespen, gainontzeko klubetako ordezkariekin nahiz erakundeekin euskarak lehentasuna duela azpimarratu du.

Are harreman zuzenagoa dute herritarrekin Agotek eta Arangurenek, zerbitzu publikoetako langile diren heinean. Agotek herriko haurrekin du hartu-eman gehien, eta eskolan azken urteetan aldaketa handirik nabaritu ez arren, aipatu du etorkin gehiago dituztela orain, eta horrek erdara ere ekarri duela eskolara: "Irailetik hona bost haur senegaldar etorri zaizkigu, urrutira joan gabe".

Hala ere, hori ez da arazoa izaten, azpimarratu baitu etorkinek urtebeterako ikasi ohi dutela euskaraz, bereziki, "gazteleraz ere ez dakitenek". Aldiz, Ertamerika edo Hego Amerikako lurraldeetako etorkinen kasuan, antzematen omen da hasieran gainontzeko haurrek ere gazteleraz egiteko joera: "Komunikazioa errazte aldera egiten dute, baina denbora pasa ahala, euskaraz egiten ateratzen dira". Agotek badaki beste herri batzuetan egoera ezberdinak daudela, eta euskarak presentzia gutxiago duela, baina zehaztu du "ez dela Getariako kasua, hemen euskaraz murgiltzen baitira".

Bestalde, herriko osasungitzan euskarak duen egoera xehatu du Arangurenek. Urteek emandako begiradatik, ondokoa azaldu du: "Gure artean, euskaraz egiten dugu, eta baita euskaraz dakitela dakigunekin ere. Aldiz, adierazi du egun ez dagoela pediatra euskaldunik: "Medikua erdalduna da; pediatra euskaldunen gabezia dago, eta arazo hori existitzen da hemen". Itxuraz, problema Osakidetzarena da pediatren eta medikuen kasuan, eta alderantziz gertatzen da administrazioko langile eta erizainekin, postu horietan normalki euskaldunak egotea bermatzen baita.

Amaitzeko, euskararen arloan zer egin daitekeen Artzape Euskara Elkarteko kideei galdetuta, diote, arnasgune diren gainontzeko herrien kasuan bezala, euskararen erabilera dela zaindu beharreko gakoetako bat. Euskararen osasuna ona izan arren, arreta ez da sekula galdu behar; zer esanik ez azken ikerketen

---

## MIREN FULDAIN

# "Egiten duguna ez dugu lan edo betebehartzat hartzen, naturaltasunez egiten dugun zerbait da"

***Bai Euskarari Saria eskuratu berri duzue. Zer sentsazio utzi dizue izendapenak?***

Lehenengoa, ezustekoa. Hamar bat urte izango da Bai Euskararirekin lanean ari garela. Hasi ginenean, diagnostiko bat egin genuen, zer aldatu ote genezakeen edo zer aukera geneuzkan ikusteko. Izan ere, aldaketak beti eman nahi izaten dira baina sarritan ezin da. Hamar urteren ostean, sorpresa izan da, guk egiten duguna ez dugulako lan edo betebehartzat hartzen, naturaltasunez egiten dugun zerbait da.

***Bai Euskararirekin duzuen elkarlana zertan oinarritzen da?***

Bai Euskararik alor ezberdinak lantzen ditu. Adibidez, euskaraz diharduten enpresen sare bat dago, edota lanpostuetarako saretxo bat ere bai. Enpresa pribatuentzat ere laguntza ematen dute zerbait euskaratu nahi duzunean. Esaterako, guri lagundu digute horretan, nominak eta horrelakoak euskaratzen. Iberdrola, banku eta antzeko enpresei fakturak euskaraz jaso nahi dituzula jakinarazteko ereduak ere badituzte. Egun, normala da hizkuntzak hautatzeko aukera ematea, baina duela hamar urte ez.

***Farmazia honek euskararen arloan emandako pausoengatik saritua izan da, eta ez da lehen aldia. FEUSEk saritu zintuzten 2007an. Zer egin duzue euskarak bere lekua izan dezan?***

FEUSE farmazilari euskaldunen elkartea da, eta bere barruan daude industriako farmazilariak, administrazioko langileak eta farmazia bulegoetan egiten dutenak. 1995-1996an sortu zen, ikusten baikenuen gure arteko harreman guztietan erdarara jotzen genuela. Agiri eta dokumentu guztiak erdaraz zeuden, eta ikusten zen gure lana euskaraz betetzeko arazoak genituela. Hor elkartu ginen 10-15 lehenengoek lan taldeak egin genituen: materialen laborategiko izenak, botiken izenak zein beste landu eta hiztegi bat ere atera genuen —gaztelera, frantsesa eta euskara biltzen zituen—. Talde horietan egiten genituen lanak bata besteari pasaz-eta aritzen ginen.

Berreundik gora kide gara: Nafarroan asko ditugu, Gipuzkoan ere bai, eta Lapurdin bat. Bizkaian gutxi eta Araban oso gutxi. Gero, FEUSEk aldizkaria ere ateratzen zuen, Farmaberri, eta euskara munduan bizi garenok harremanak sortu genituen gure artean: UZElrekin, unibertsitatearekin...

Horrez gain, sari bat ere ematen du FEUSEk, farmaziako azken urteko ikasleen testu original bati ematen zaiona. Bestalde, Farmaburu saria ere badago euskararen alde egin duen talde edo pertsona baten lana saritzeko. Hori da niri

arabera, joera beheranzkoa denean erabilerari dagokionez.

Modu ugari dago euskara kalera ateratzeko. Gainera, ekintza horien garrantzia handia da, etorkizuneko gizartearen oinarri izango direnak biltzen dituelako. Aisian jarduten dutenak dira horiek, izan Txeru nola Urritza. Eremu horiek euskararentzat irabazteak bermatu dezake biziraupena.

Bide horri jarraituz, Artzape Euskara Elkarteak zenbait ekintza eraman ditu aurrera aurten herriko hainbat talderekin elkarlanean. Besteak beste, bertso ikastarokoekin harremana egin da, eta bandarekin, Udalarekin edota Balenciaga Museoarekin ere aritu da. Halaber, elkarteak baditu bere erronkak etorkizunera begira; esaterako, elkartera jende gehiago gerturatzea, guztien ekarpenekin aberatsagoa izan dadin.

2007an eman zidatena. 1996an sartu ginen FEUSEn, eta talde askotan nengoen sartuta, baina 2003an formulak egiteko legea aldatu zuten, eta protokolo zehatza ezarri. Adibidez, beti erakustorria entregatu beharra —eurek aurretik ere egiten zuten—. Madrildik zetorrenez, dena erdaraz zegoen. Guk euskaraz nahi genuen, beraz, hasi ginen erdaraz zeuden formulak euskaratzen eta guk prestatutakoak elebitan egiten. Guk farmazilarien elkartearen web orrian txertatu genituen horiek eta aurrez geneuzkanak; hortik etorri zen sari hura.

***Prospektuak euskaratzea lan zaila izan al zen?***
Bai, batez ere hitzak falta zirelako. Bagenuen hiztegia, baina segituan motz geratu zen, eta gure artean elkartzen ginen gauza bat zein bestea nola esan jakiteko. Hainbat gauza finkatu genituen, eta UZEIk ere lagundu zigun, mankomunitateko euskara zerbitzura ere deitzen nuen... lana zen, erdaraz egitea askoz errazagoa da, web orrira joan eta handik kopiatzea besterik ez da.

***Beraz, euskaraz egitea kontzientzia kontu bat da?***
Bai, baina nahi izan genuen behintzat euskarazko aukera hori prest utzi. Hala, farmazien izenak aldatu eta erabiltzeko moduan zeuden.

***Nolako harrera egin zioten erabiltzaileek horri?***
Guk, Getarian, hasieratik euskaraz eta gazteleraz egiten genituen erakustorriak. Horregatik, Getarian ez zen diferentzia askorik igarri. Agian, aldaketa nabarmenena formatoari zegokiona izango zen, gauzak asko zehaztu zirelako: osagaiak, albo-ondorioak, haurdunaldiak...

informazio gehiago jasotzen zutelako. Farmazia guztietan informazio berdina jasotzen da.

***Eguneroko kontaktua duzu herritarrekin. Nolakoa da euskararen egoera herrian?***
Ni 1992an etorri nintzen Getariara, aurten egin ditut 25 urte. Iruditzen zait azkenaldian gazteleraz gehiago egiten dela. Egia da baita kanpotik ere jendea etorri dela, baina kalean, plazan eta herrian antzematen dudana da herrian gaztelera gero eta espazio gehiago hartzen ari dela. Tabernetan ere gauza asko gaztelera hutsean dago; menuak adibidez. Nire sentsazioa da, eta ez dut frogarik, baina lehen euskaraz gehiago jartzen zela uste dut.

*"Zabor bilketa osorik mankomunatzearekin batera baliabideak optimizatu egingo dira, eta zerbitzu bera eskainiko da eskualde osoan".*

**Testua**
JON ANDER DE LA HOZ

## Zabor bilketa

# BIRZIKLAPENAREN BIDEAN, SISTEMA BATERATUA

*Urola Kostako Udal Elkarteak hondakinak biltzeko sistema bakarra abiatuko du otsailean Getaria, Zarautz, Zumaia, Orio eta Aian. Birziklapen tasa hiru urtean %35 igotzea dute helburu. Horretarako hainbat aldaketa izango dira, besteak beste, hondakin organikoak zein errefusa biltzeko edukiontziak txartel bidez irekiko dira.*

"Herritarrentzat, eta batez ere, ingurumenarentzat ahalik eta sistema egokiena izan daitekeena adostu eta martxan jartzeko pauso garrantzitsua da". Horrela laburbildu zuen Urola Kostako Udal Elkarteko presidente Igor Iturainek 2018ko otsailaren lehenean abiatuko duten hondakinak biltzeko sistema berria. Udal Elkartea osatzen duten bost herriek egin dute bat proiektuan —Getaria, Zarautz, Zumaia, Orio, Aia—, eta tokiko alderdi politiko guztien babesarekin itxi dute akordioa. Zuzendaritza batzordeak aho batez onartu zuen zabor bilketa mankomunatzeko erabakia, EAJ, EH Bildu, PSE-EE, Irabazi eta Orioko Orain herri plataformak bat eginda. Alderdi horietako ordezkariak bildu ziren elkartearen egoitzan iragan urriaren 27an egindako aurkezpenean, eta bertan izan zen Getariako Udaleko zinegotzi Aitor Urresti ere.

Hala, sistema berriak aldaketa zenbait ekarriko ditu hondakinak biltzeko garaian. Nabarmenen artean dago herritarrek hondakin organikoak eta errefusa biltzeko edukiontziak txartel bidez irekiko direla. Eguneko 24 orduetan erabili ahal izango da txartel hori. Aldiz, sortzaile nagusienei —komertzio eta ostalariak— gaikako zerbitzua eskainiko zaie, zabor organikoa, papera eta kartoia nahiz errefusa jasotzeko. Zerbitzua asteko sei egunetan jaso ahalko dute saltokiek; ostalaritzan egunero jasoko dute. Aldiz, enpresa eta tailer handien kasuan zabalagoa izango da bilketa, beste material batzuk ere erabiltzen dituztenez lantegiko egunerokoan: organikoa, errefusa eta kartoiaz gain, ontzi arinak, egurra eta poliespana jasoko zaizkie. Landa eremuan ere berrikuntzak egingo dituzte, edukiontzi guztiekin hornitutako bilketa gune berriak sortuta. Tokian tokiko egoeretara gerturatzeko beharra azpimarratu dute elkartekoek, eta horregatik, badakite urtaro guztiak ezberdinak direla: "Gure herriek bisitari gehiago jasotzen dituzte bolada jakin batzuetan, eta leku batzuetan besteetan baino gehiago. Hori ere kontuan hartu dugu".

Udal Elkarteko presidentearen arabera, hondakinen bilketa bateratzeko prozesua ez da erraza izan: "Bost herrik bat egin behar izan dute, eta bakoitzaren egoerak, berezitasunak eta tasak ezberdinak izan dira orain artean". Hala ere, Iturainen arabera aukera ona da, eta oroitarazi du "birziklatzea pertsona modernoa izatea dela". Alderdi eta eragile ezberdinek proiektua aurrera ateratzeko egindako esfortzua azpimarratu du: "Zabor bilketa osorik mankomunatzearekin batera baliabideak optimizatu egingo dira, eta zerbitzu bera eskainiko da eskualde osoan". Halaber, Udal Elkarteko presidentearen iritziz "hondakinak gaika sailkatzeko indizea igotzea ahalbidetuko du mankomunatzeak, eta errefusa gutxitzearekin tratamendu kostuak murriztu egingo dira".

Hori guztia kontutan, Udal Elkarteak uste du "zerbitzu berriak emandako erraztasunekin eta herritarren inplikazioarekin" tasa handitzeko aukerak biderkatuko direla. Mankomunitateak argi ditu zeintzuk diren datozen urteetarako helburuak: "Gaur egun %40ko birziklatze tasa dugu, eta 2020an %75 izatea da gure nahia". Gorakada kolpetik etorriko ez denaren jakitun,

urratsez urrats egiteko asmoa azaldu dute; hala, 2018an %60ra igo nahi dute, eta 2019an %70era. FCC eta Serbitzu enpresek hartuko dute kudeaketaren ardura, aldi baterako enpresa-elkarte baten bidez.

Herrietan jarritako karteletako bat, bakoitza irudikatzen duen kolorearekin.

## *Bagoazz kanpaina, abian*

Aurkezpenean sistema berriaren xehetasunak emateaz gain, haren ezarpen fasea indartzeko kanpaina aurkeztu zuten Oskia Yaben eta Iñigo Exposito Kultur Atelier komunikazio enpresako kideek. Eurek garatu duten kanpainak lau fase izango ditu.

Aurkezpenarekin batera hasi zen lehendabizikoa, urriaren 27tik abenduaren 1era arte luzatu dena. Sentsibilizazio fasea izan da, *Bagoazz* lemapean osatu dutena. Hain justu, leloak bailarako herri guztiei egiten die erreferentzia —Getaria, Orio, Aia, Zarautz eta Zumaia—, eta "guztiak bide berean elkartzeko deiaren erakuslea da". Aldiz, irudia bost kolorez osatutako gezia da, eta honekin ere egin diote erreferentzia proiektuko herriei. Hala, marroiak —Getaria—, urdinak —Zarautz—, gorriak —Zumaia—, horiak —Orio— eta berdeak —Aia— osatzen duten gezi hori.

Yabenen arabera, sentsibilizazio kanpaina modu koloretsuan egitearen beste zergatietako bat da azpimarratzea "tentsioak askatzeko izan duen balioa". Horrez gain, *Modernizatu* hitza ere gehitu diote fase honi, "birziklatzea guztion betebeharra dela adierazi eta bestelako jarrerak beste garai batekoak direla nabarmentzeko". Hain zuzen ere, *Bagoazz* eta *Modernizatu* hitzekin egindako kartelak kokatu dituzte herrietan; afixetan kolore biziz apaindutako bizilagunen irudiak agertu dira, izan betaurreko, makillaje edota ile koloretsuekin, "hazkundearen giltza gutako bakoitzak duela azpimarratzeko". Horiez gain, bideo pilulak ere sortu dituzte, baita kanpainako posterrak ere.

Datorren fasea informazioan oinarrituko da. Abenduaren 1etik urtarrilaren 22ra herritarrei azalduko diete nola funtzionatuko duen sistema berriak. Horren ezarpenak hartuko du tokia ondoren, urtarrilaren 22tik otsailaren 1era. Egun horren ostean martxan izango da sistema berria, eta jarraipen faseari ekingo diote.

Sentsibilizazio kanpaina honekin pertsonok hondakinekin egunerokoan ditugun ekintzen inguruko hausnarketa bultzatu nahi dela azaldu du Iturainek, eta oroitu, bide batez, eskualdeak martxan jarri behar duela "Gipuzkoako beste eskualde aurreratuenen pare edo aurreratuago jarrita, horretarako gaitasuna badugulako".

Saiazgetaria
HOTELA

BILERA GELA DAUKAGU

Roke Deuna 25
20808 **Getaria**
Gipuzkoa

T 943 140 143
F 943 140 345
E info@saiazgetaria.com
W www.saiazgetaria.com

OSTOLAZA TALLERRA
Tailer mekanikoa.
Soldadura eta kaldereria.
Txoritonpe industri gunea, 20.
lonja, portua z/g
20808 Getaria
Tel.: 943 140 110 / 675 707 203
ostolazatallerra@gmail.com

ERABERRI
ERABATEKO BERRIKUNTZAK
·680880905
·676532067
GETARIA
www.eraberri.com

eskura
Fisioterapia zentroa
JOSUNE UCIN BERASALUCE
697961208

BABEXA
Getariako dendari elkartea

SIZ
Servicios Informáticos Zarautz
Ekipo informatikoen salmenta
Mantenua
Informatika akademia
Webguneen diseinua
Urdaneta, 2 bajo · 20800 Zarautz
tel. 943 894 014 · fax 943 133 410
www.zarautz.com · siz@zarautz.com

GIROA TABERNA
·Plater konbinatuak
·Bokatak
·Pintxo goxoen aukera
Kale Nagusia, 24 - GETARIA - Tel.:943 140 800

ASKIZU
FAMILIA ETA TALDEENTZAT ESKAINTZA BEREZIAK
943 83 36 41
www.itsasoa.eus | www.albergue-getaria.com
arazi@arazi.eus


## PUBLIZITATE TARIFAK

| Tamainak | Zenbatekoa |
|---|---|
| *4,3 x 4* | *12 euro* |
| *9 x 4* | *24 euro* |
| *13,6 x 4* | *36 euro* |
| *9 x 8* | *48 euro* |
| *13,6 x 8* | *72 euro* |
| *orri erdia* | *96 euro* |

*Urte osoan jartzen dutenei %10eko deskontua egingo zaie.*


Ganix Arakistain
OSTEOPATIA
943253634

# Hasi dituzte beilatokiaren obrak hilerriko atarian

Iaz orotariko iritziak eragindako beilatokia errealitate bihurtzeko bidean da, izan ere, duela aste batzuk hasi ziren eraikitze-lanak. Hasierako asmotik hainbat gauza aldatu dira, besteak beste, kokapena eta finantzaketa.

Eskualtxetan egiteko ideia plazaratu zuen Udalak iaz; ordea, lekualdatu eta hilerri atariko lurretan ekin diete lanei. Kokapen berriak proiektuari baliabideak gehitzeko aukera eman du. Horrela, beilatokiak 70 metro karratu izango ditu, bi itxarongela eta hildakoentzako kapera bat. Halaber, hileta zibilak egiteko gunea izango du.

Erosotegi eraikuntza enpresa ari da obretan, eta hiru hilabetetan amaitzea espero da. Horretarako 132.180,42 euroko aurrekontua du. Iazko asmoak 90.000 eurokoa zuen eta Eusko Jaurlaritza %80a bere gain hartzeko prest zegoen; orain, ez du bermatzen hasieran esleitutako diru-laguntza. Dena den, Udaletik argitu dute, ez dela mailegurik eskatuko.

Obren egoera duela egun gutxi.

# ARTZAPEren aldeko zozketa erraldoia, igandean

Irailean Eskualtxetara lapurretara sartu zirenetik, lanean jarraitu dute Euskara Elkarteak nahiz ARTZAPE aldizkariak. Dena den, lanerako beharrezko tresnen premiak hor jarraitzen du; horregatik erabaki genuen herriko komunikabidearen aldeko zozketa erraldoia antolatzea.

Batzuekin zein besteekin hitz egin eta Getariaren erantzuna, beste behin ere, zoragarria. Bakoitzak duenetik eskaini digu, eta horrela osatu dugu zozketa erraldoia. Sariak orotarikoak: herriko dendetako produktuak; gosari, afari zein bazkariak kafetegi, taberna eta jatetxeetan; gauak hoteletan; kirol ikastaro, masaje nahiz osteopatia saioak, eta abar. Eskurako erakusleihoan daude guztiak ikusgai.

Bestalde, nola ahaztu, aldi berean, zozketako errifak erosi dituzuen horiekin? Zortedunak zareten jakiteko hurbildu **igandean, abenduak 3, 12:00etan plazara**. Bertan egingo dugu zozketa, zuen pozarekin gozatuz.




ARTZAPEren aldeko zozketako boletoak.

# 2017ko ABENDUA

**1** Ostirala
### Umeentzako ipuin kontalaria
**Ordua:** *17:00*
**Lekua:** *Liburutegia*
**Antolatzailea:** *Elan Euskadi, Gaztetxea, Getariako Udala eta Getariako Eskubide Sozialen Karta TTIP/CETA akordioen aurka eta Herriok Erabakitzearen alde antolatutako ekintza.*

### "Koadernoa zuri" antzezlana
**Ordua:** *22:00*
**Lekua:** *Cristobal Balenciaga Museoa*
**Antolatzailea:** *Getariako Udala Sarrerak 5 euro balio dute eta informazio bulegoan daude salgai.*

**2** Larunbata
### Ekitaldia: musika, kantua eta irakurketa
**Ordua:** *12:30*
**Lekua:** *Plaza*
**Antolatzailea:** *Elan Euskadi, Gaztetxea, Getariako Udala eta Getariako Eskubide Sozialen Karta TTIP/CETA akordioen aurka eta Herriok Erabakitzearen alde antolatutako ekintza.*

### Mus Txapelketa
**Ordua:** *16:00*
**Lekua:** *Berdura plaza*

### Bertso-afaria
**Ordua:** *21:00*
**Lekua:** *Gaztetxea*
**Antolatzailea:** *Getaiko Gazte Asanblada eta Artzape Euskara Elkartea*
*Danel Olano, Libe Goenaga, Maialen Velarde eta Aitor Salegi ariko dira bertsotan.*

**2-3** Larunbata-Igandea
### Ipar Martxako oinarrizko ikastaroa. Teknikaren ikasketa
**Ordua:** *09:00-12:00*
**Antolatzailea:** *Getariako Udala Bastoiak utziko dira. Izen-ematea informazio bulegoan egin behar da.*

**3** Igandea
### Gazte Alaiak txistularien diana
**Ordua:** *09:00*

### ARTZAPEren aldeko zozketa erraldoia
**Ordua:** *12:00*
**Lekua:** *Plaza*
**Antolatzailea:** *Artzape Euskara Elkartea*

### Gazte Alaiak txistulari taldearen kontzertua
**Ordua:** *12:30*
**Lekua:** *Salbatore Deuna parrokia Xixili Egunaren harira, Musikaz Blai egitasmoaren baitan antolatuta.*

**10** Igandea
### Lezkarri Abesbatza eta Salbatore Deuna Abesbatzaren kontzertua
**Ordua:** *12:30*
**Lekua:** *Salbatore Deuna parrokia Nize M. Crespo izango da zuzendaria.*

**16** Larunbata
### Santo Tomas eguneko ospakizuna
**Ordua:** *12:30*
**Lekua:** *Plaza*
**Antolatzailea:** *Gure Txeru Arratsaldean gaztain erreak izango dira.*

### Gabonetako apaingarrien tailerra
**Ordua:** *12:00*
**Lekua:** *Berdura plaza*
**Antolatzailea:** *Urritza Aisialdi Taldea*

### Gabonetako kanten entsegua
**Ordua:** *18:00*
**Lekua:** *Txeruren lokala*
**Antolatzailea:** *Gure Txeru*

**17** Igandea
### Gabonetako kantaldia
**Ordua:** *13:00*
**Lekua:** *Salbatore Deuna parrokia Musika Eskola, Getariako Abesbatza eta Gazte Alai Txistulari taldearen eskutik.*

### GetariPin
**Ordua:** *16:00-19:00*
**Lekua:** *kiroldegia*
*Umeentzat ginkana, jokoak, txapelketak, herri kirolak...*

### Musikeneko ikasleen kontzertua
**Ordua:** *19:00*
**Lekua:** *Salbatore Deuna parrokia*

**21** Ostirala
### Donostiako Santo Tomas Egunera irteera
**Ordua:** *10:30etik aurrera*
**Antolatzailea:** *Arrantzale Zaharren Elkartea*
*Hamaiketakoa egiteko batuko dira elkartean, Donostiara joan eta Oiartzunen bazkalduko dute. Arratsaldean Pasaiako Albaola Museoa bisitatuko dute. Abenduaren 19a baino lehen eman behar da izena.*

**22** Ostirala
### Katukale irakurle taldearen saioa
**Ordua:** *18:30*
**Lekua:** *Liburutegia*
*Joseba Sarrionandiaren "Lapur banden etika ala politika" liburua landuko dute.*

**23** Larunbata
### Gabonetako kanten entsegua
**Ordua:** *18:00*
**Lekua:** *Txeruren lokala*
**Antolatzailea:** *Gure Txeru*

**24** Igandea
### Olentzero eta Mari Domingiren etorrera
**Ordua:** *arratsaldea*
*Herriko taldeak kalez kale ibiliko dira kantari.*

**28** Osteguna
### Sorgina Txirulina ipuin kontalaria
**Ordua:** *10:30*
**Lekua:** *Liburutegia*
*3-9 urteko haurrentzat. Sorgina Txirulinak Gabonei buruzko ipuinak kontatuko ditu txirula joz. Izena liburutegian eman behar da.*

**31** Igandea
### San Silbestre kros herrikoia
**Ordua:** *12:00*
**Antolatzailea:** *Kirolgune eta Getariako Udala*

## Cristobal Balenciaga Museoa

**8** Ostirala
### Iñigo Serrullaren kontzertua
**Ordua:** *16:00*

**10** Igandea
### Bisitaldiak Dantzaz
**Ordua:** *12:30*
*Izena eman behar da Museoan.*

## BIDALI ZURE DATUAK:

artzape@topagunea.com-era

Txeruko postontzira

IZEN-DEITURAK:

HELBIDEA - HERRIA - P.K:

TELEFONOA:

HELBIDE ELEKTRONIKOA:

KONTU ZENBAKIA:

BANKETXEA:

Urtean 25€ - Getariatik kanpora bidaltzea 30€